

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 29a / 608. zenbakia

Aitor Lopez Rekarterekin berbetan

Realeko jokalaria mondragoetarrarekin izan gara, besteak beste, futbolaren gainean berbetan.



ORAIN ETA HEMEN: GERNIKA OINEZKOEN ZUMARDIA/8 • KULTURA: ENEKO BARBERENA/14

ARGAZKIA: XABIER URZELAI

ORAINGO ASTEAN: EDERTASUN GIDA/24



GATZA ETA BERAKATZA...


Gertuko sukaldea, gertu-gertutik!

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

Egunero,
13:30ean, 16:00ean,
19:45ean eta 21:45ean

KALEINKESTA/ Gizartiek emuten dau errextasunik umiek etxien hazteko?



ANDONI GALARRAGA
Ikasle



MARI BADIOLA
Jubilau



KRISTINA SANZ
Langillie



JOSE RAMON ZUBIZARRETA
Langillie



PETRI MARTÍN
Langillie



ASIER KEREJETA
Langillie

Ez dot uste. Haurtzaindegire eruen biher die, edo umie zainketako norbait kontrata. Hori, edo beste- la umie aittittakin eta amakin itxi, gaur egun, gurasuek lan egitten daue-eta.

Ez, ez daue bat be errextasunik emuten. Neu amama naz, eta illobie zainketan dot, alabie lanien dabil-eta. Ez badot neuk zainketan, neska bat kontratau biher; eta merkie danez, ba...

Argi dago lan egin ezkeru umie haurtzaindegire eruen biher dala; aiton-amonakin ixtie be ez da ona izeten. Ez dakit zein dan soluziñue, ez da-eta bat be errexa.

Geuriek honezkero nagusittuek die. Bixok gebitzen lanien, eta amamangana jo geuen. Batzuek esaten daue ona dala umiek haurtzaindegire eruetie, beste batzuek etxien hobeto...

Pentsetan dot aguduegi erueten dittugula umiek haurtzaindegire. Gero umiek maittasun faltiak egoten die, eta ez die familia giruen hazten. Hori oso inportantie izeten da.

Gizartiek ez dau laguntza haundirik emuten. Amatasun baja lau hillabete baino ez da izeten, eta gainontzien, familixaren laguntza eukitten dogu. Amatasun bajie luzetu leike-edo...

TXALOAK ETATXISTUAK

TICKET DE CONTROL

Conserve el ticket, en caso de extra-
vio, se abonarán 24 horas por cada día
o fracción en el estacionamiento.

ENT 0414428211121958

ESTE TICKET AUTORIZA A SU POSEEDOR A APARCAR UN VEHICULO.
EL USUARIO ES RESPONSABLE DE LOS DAÑOS QUE PUDIERA OCASIONAR A
INSTALACIONES DEL APARCAMIENTO O A OTROS VEHICULOS OBLIGANDOSE
AL CAUSANTE A COMUNICARLO AL ENCARGADO.

Serie 1 N 4460532 /02

SAINCO TRAFICO 777 TICKET SYSTEMS 93 387 36 00

TXISTUAK **PARKING ZERBITZUA, GAZTELANIAZ** Irakurle batek jakinarazi digu Udalak Laubiden jarri zuen parkingak oso zerbitzu ona ematen duela. Hain zuzen ere, herrian aparkatzeko dagoen arazoa kontuan hartuta, halako parkingaren premia dagoela. Baina badu horren gaineko kezka bat: Laubideko parkingean ematen dituzten txartelak gaztelania hutsean daude, eta horiek aldatzea eskatu du.

ETABARRUAN...

KIROLA /11	KULTURA/14	ZAHARRAK /17
Kencik etxean jokatu du	Kukubiltxoren azken lana	90 urtetik gorakoak
Bihar, zapatua, Kenci Arrasatek Paules taldearen kontra jokatu du, arratsaldeko seietan.	Kukubiltxo taldeak <i>Ekidazu, lehoiek ez dakite bibolina jotzen</i> lana eskainiko du, bihar, Arrasaten.	Joan den martitzean, Abaroa elkarteak 90 urtetik gorako bazkideei omenaldia egin zien.

ASTEKODATUA

114.192

EURO EMAN DIZKIO ALDUNDIAK UDALARI

Gipuzkoako Foru Aldundiak 114.192 euro eman dizkio Arrasateko Udalarari Zabaletako lanetarako. Bi urtean Foru Aldundiak 342.037 euro emango dizkio Arrasateko Udalarari, lan horretarako.

BESTE EKESANA

Bidegorri berria Bainuetxe industrialde berria dagoen tokitik hasten da, Mendiolarako bidean gutxi gorabehera, lehengo bainuetxeak zeuden lekuan. Bidegorri horrek Urkulura modu erosoan eta larregi nekatu barik joateko aukera ematen du, aldaparik ez dagoelako eta autorik eta motorrik ibiliko ez delako. Horrez gain, bidegorria hasten den lekuan bertan aparkaleku eder bat jarri dugu (...). Bidegorriaren helburu nagusia da Urkulutik ahalik eta auto gehien kentzea eta aretxabalarrok eta kanpotarrok erabiltzea (...). Urkulu gozatzeko leku bat izan dadila, orain dena baino gehiago. Bidegorritik ordu laurdenean Urkulura hel zaitzeko eta autoa gutxiago erabiltzera ohitu behar gara"

ANGEL BERGARETXE
ARRASATE IRRATIA/02-11-27

HERRITARREN BERBAK/ Iker Ezpeleta



Garagartzan ez da giro

Hautsak harrotuta sumatu nituen joan den zapatuan Garagartzako bizilagun batzuekin izandako bileran. Kezka bizia Abiadura Handiko Trenaren zundaketa lanak hasi direla eta munstroaren hatsa kokotean igartzen dutelako. Dena dela, ez da beraien kezka bakarria AHT. Orain arte oso ondo bizi izan direla eta, euren bizi kalitate maila beherantz nola doan dute kezka nagusia. Bai ustez berneratuta duten eraginekin, harrobia edo txaletak kasu, nahiz irensteko zailagoa egiten zaien Fagorreko aparkalekua edo trafikorearen arazoa medio. Aurrera begira datozen Atxabalpeko blokeena (zerbitzu lurzoru bat urbano birkalifikatu eta blokez betetzeak ez dakar ezer onik auzoarentzat) edo AHTren asuntua auzo bat lur jota uzteko modukoa da bai.

gehiago), gauzak aguroegi doaz. Horren aurrean AHT Gelditu! Elkarlanekuok AHTren kasuan, eta nik behintzat orokorrean, eskaera xume batera heldu gara: pausagune bat eman behar dugula, erreflexiorako tarte bat behar dugula atzeraezinezko pauso horiek eman aurretik.

Baten batek alternatibak eskatu zituen AHTrendako; erantzun bakarria alternatibak zeri izan zen: AHTri edo horrek dakarrenari, garraio ereduari. Edota eman leiken alternatiba bakarria eredu sozioekonomiko osoaren aldaketa izan beharko litzateke. Garapenaren edo, berdina dena, garapen jasangarriaren ordainsaria gero eta jasangaitzagoa izaterik ez badugu nahi behintzat.

Bukatzeko, besarkada bat eta animuak Auzientzia Nazionaletik pasa ziren azken hiru arrasatearrei, hara bidali zituenaren jarreraren gainean ezin ezer esan kartzela mehatxupean. Demokrazia, adierazpen askatasuna...

"Erreflexiorako tarte bat beharrezko dugu, atzeraezinezko pauso horiek eman aurretik"

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 29**
Azkoaga, Iturriotz 33. 943 79 79 99
- ZAPATUA, 30**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- DOMKA, 1**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 2**
Ruiz, Maala 31. 943 79 14 09
- MARTITZENA, 3**
Español, Araba etorb. 17. 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 4**
Azkoaga, Ferrerías 1. 943 79 15 15
- EGUENA, 5**
Azkoaga, Iturriotz 33. 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguatorialdea. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
. 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | |

OHARRAK

SAN FRANTZISKO XABIER
Martitzenean, abenduaren 3an, Arizmendi Ikastolako gune guztietan ikastolaren zaindariaren eguna ospatuko dute: San Frantzisko Xabier Eguna. Goizetik hasita hainbat kirol eta kultura ekintza izango dira, Arizmendi Ikastolaren gune guztietan banatuta.

MUSIKA BANDA KOEN BILKURA
Arrasateko Musika Bandako musikari beterranoek -berrogei bat- bilkura egingo dute, bihar, zapatua, 12:00etan, San Frantzisko elizan hildako musikarien omenezko meza entzungo dute. Eta 14:00etan, Hilarion jatetxean bazkari-legea egingo dute.

KUKUBILT XOREN IKUSKIZUNA
Bihar, zapatua, Kukubiltxo taldeak *Ekidazu, lehoiek ez dakite bibolina jotzen azken ikuskizuna eskainiko du*. Ikuskizuna Amaia Udal Antzokian izango da, 17:00etan, eta haurrendako zein nagusiendako da.

INSTITUTU KOEN BAZKARIA
Arrasateko Institutuaren 25. urteurrenean, Institutuko irakasleendako eta ikasle ohienendako bazkaria antolatu dute, bihar, zapatua, Uarkape jatetxean, 14:30ean.

AEDren AGENDA

BERTSOZALEAK
Orain dela aste bi bertso-afarian izan ziren lagun batzuek erabaki dute egubakoitz iluntzetan AEDko txokoa batzea. Zeuk ere parte hartu!

ZAHARBERRIKO IZENEMATEA
Zaharberri euskaldun zaharren eta euskaldun berrien premia dute.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
- IBILBIDEA:** Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
- IBILBIDEA:** Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAIN DELA 10 URTE ARRASATEN


Juanito Arzamendi omentzeko kontzertua

Arrasate Musikaleko hogeigarren urteurrenean, eskolako ikasleek San Juan Bautista parrokiako kontzertua eman zuten eta, bide batez, Juanito Arzamendi omentzeko kontzertua eman zuten. Juanito Arzamendi hasieratik musika eskolako arduradun izan zen, eta opari gisa erretilua eta batuta eman zizkioten.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Basatzia"



Lokatzadia. Baita elur zapaldua eta urtsua.
— *Mekauben, emen jak basatzia, oiñetako guztiak kakaztuko jittuau.*
— *Azkenengo edurtian egundoko basatzia ein zan Bergako kaletan.*

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Deiane Arrieta, asteburua prestatzen

Aurrerantzean, egubakoitz iluntzetan, 19:00etan, Deiane Arrietak *Planing Prest* saioa aurkeztuko du. Agendari gainbegiratu sakona emango dio, eta antzerkian, musikan eta beste alor batzuetan antolatu diren ekintzen berri emango du. Musikak ere izango du tartea saioan. Datorren astean, bestalde, Durangoko Azokan izango gara. Hilarren 5ean, eguenean, joango gara Durangora, eta hantxe izango diren diskoen eta liburuen berri emango dizuegu.



Jennifer Nelson, musika produktorea

Astean, Jennifer Nelson aretxabaletarra izan da irratian, bere lanaren berri ematen. Hainbat musikarirekin aritzen da lanean, produktore lanak egiten. Esate baterako, Lucreciarekin lan egindakoa da. Mundu horren gainera hehatsunen berri izateko aukera izango duzue, zapatu eta domeka goizean errepikatuko dugu eta elkarrizketa.

Bestalde, Ainhoa Larrañaga abokatua testamentuen gainean mintzatuko da.

HAUGIROA!

MINIMOA Domeka, 24	0 °C
MAXIMOA Zapatua, 23	16 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	13,7 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 20	16 °C 8 °C 0,8 l/m²
Eguena, 21	16 °C 6 °C — l/m²
Egubakoitza, 22	14 °C 9 °C — l/m²
Zapatua, 23	16 °C 12 °C — l/m²
Domeka, 24	12 °C 0 °C 12,2 l/m²
Astelehena, 25	12 °C 6 °C 0,7 l/m²
Martitzena, 26	14 °C 5 °C — l/m²

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
10:06 Igo Autobusera.
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efe-merideak, zozketak, zorion agurrak...
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Musika berriaren tartea.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
19:00-21:00-23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra

ASTELEHENA
20:00 MIR: Gaizka Vitoria eta Iban Idigoras. Estilo desberdineko musika.

MARTITZENA
20:00 Txortxorrien: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria. Albiste bitxiak eta musika.

EGUBAKOITZA
19:00 Planing Prest: Deiane Arrieta

ZAPATUA
11:00 Asteko elkarrizketak

DOMKA
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Harreman, sinadurak batzen

Harreman gobernuz kanpoko elkarteak sinadurak batzen ari da duela bi aste inguru. Bidezko merkataritzaren aldekoak dira sinadurak; hain zuzen ere, Harreman-en helburua da egindako lanagatik modu egokian ordaintzea herri pobreetako ekoizleei.

Harreman elkarteak Eroski hipermerkatuan duen denda ari dira sinadurak batzen. Eta abenduaren 8ra arte dago elkartasuna erakutsi eta sinadura emateko.

Sindikatuaren kale bilkura

ELA, LAB eta ESK sindikatuetako Udaleko ordezkariak kale bilkura deitu zuten, joan den egubakoitzean, hilaren 22an. Eta deiari erantzunez, Arrasateko Udaleko zenbait langile kalera irten ziren, eguerdian. *Eskubide guztiak denontzat. Demokrazia Euskal Herriarentzat* lelopean elkartu ziren, eta, oro har, gaur egun Euskal Herrian bizi den egoera salatu gura izan zuten agerraldiaren bitartez. Ekimen horrek jarraipena izango du, eta egubakoitzetan batzen jarraituko dute.

Euskararen osasuna aztergai

Euskararen osasunaren gaineko azterketa egin dute Ibon Usarralde eta Iñaki Martínez de Lunak Euskal Herriko bost herritan: Arrasaten, Bergaran, Andoainen, Hernanin eta Lasarten. Eta joan den egunean kaleratu zituzten ikerketaren emaitzak, Monterron jauregian. Horren arabera, euskal hizkuntza komunitatearekiko eta euskararekiko atxikimendu handiagoa dago Arrasaten, Andoainen edo Hernanin baino. Horrekin batera, Arrasaten handiagoa da euskarak jasotzen duen sostengu instituzionala.

Ikerketa egiteko Quebecen egindako azterketa bat hartu dute oinarritzat. Euskal Herrian horrelako metodo bat erabili duten lehenengo aldia da.



Elikadura eta osasuna aztergai

Eroski Fundazioak antolatuta, *Elikadura eta Osasuna* izenburupean jardunaldiak egin ari dira, egunotan, Monterronen. Eguaztenean, esaterako, elikagai ekologikoen gaineko berbaldia izan zen. Besteak beste, elikagai horien abantailak eta eragotzenak azaldu zituzten. Aretoa bete egin zen.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Paseoa, aldaketa eta bilkura

Udalak aspaldi ezarritako helburu bat betetzen doa poliki-poliki.

Gernika oinezkoen zumardiak, hau da, Arrasate puntarik punta lotzen duen paseo-guneak, beste pausobat eman du. Datorren astean Erguingo inguruak eta Monterron lotuko dituen zubia jartzen hasiko dira, eta laster, Musakolatik Erguiraino zumardi horren bitar-

tez oinez joatea posible izango da. Zumardi horren ustezko aldapak beste kontu bat dira.

Gogoan daukat txikia nintzenean (baita geroago ere) Union Cerrajera enpresak Arrasate osoa puntarik punta zeharkatzen zuela pentsatzeak txundituta uzten ninduela. Ez zen gutxiagorako! Orain, ordea, Cerrajeraren eraikin erraldoia desa-

gertuta dago, eta herria zeharkatzen duen ordezko bat dago, seguruenik Cerrajeran lanean ibilitakoek ere erabiliko dutena.

Erretiratuen edo jende nagusiaren harira, bihar, zapatua, oso bilkura berezia egingo dute, herrian. 1974an desagertutako Musika Bandaren partaide talde batek bilkura egingo du, lehenengoz, azken 28 urteotan. Asmoa zen emanaldia egitea, baina ez da posible izango. Baietz hurrengoan!

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

90 URTETIK GORAKOEI OMENALDIA

Argi asko geratu zaigu oraingo astean geroago eta urte gehiago hartzen ditugula zahartzaroan. Horren adierazle da Abaroa zaharren elkarteak 90 urtetik gorakoei egindako omenaldia. Sekulako zerrenda luzea egin zuten 90 urtetik gorakoekin, eta hori, Abaroa elkarteko kideak bakarrik hartu zituztela kon-

tuan! Horrek esan gura du Arrasate osoan oraindik askoz gehiago daudela. Gainera, orain dela urte batzuk, 80 urtetik gorakoendako izaten zen omenaldia. Hortaz, nahiz eta askotan entzuten dugun bizimodu eskasa daramagula, zahartzaro luzeagoa dugu. Hori bai, adin hori hartu behar! /U.M.



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 - 79 78 14
ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

ELKARRIZKETA

AITOR LOPEZ REKARTE/REALEKO JOKALARIA

“Taldean uste dugu une hau gozatzeko dela, lehen ere nahikoa sufritu dugu-eta”

XABIER URZELAI

Azkenekoz, lehen mailara igo zenean izan zen ARRASATE PRESS Aitor Lopez Rekarterekin. Orditik hona, zazpi urte pasatu dira, eta gaitza izango da Aitor elkarrizketatzeko oraingoa baino une aproposagoa izatea. Gauza asko ditugu galdetzeko, eta guztiak ez dira futbolaren gainekoak, ez gara-eta kirol egunkaria. Hasteko, Santa Barbarara igorazi dugu, argazkiak ateratzeko.

Noiztik Santa Barbaran egon barik?

Aspalditik Santa Barbarara igo barik. Gaztetan, askotan egoten ginen Santa Barbaran, eta polita izan da berriro gora igotzea. Gaztetako oroitzapen asko etorri zaizkit burura.

Santa Barbarako zuhaitzak Aitorren zenbat gaiztakeriaren testigu dira?

Uf! Ikastolatik askotan igozen ginen gora, eta gaiztakeria asko egin ditugu. Zenbat ez dakit, baina asko direla, seguru.

Sumatzen da faltan gaiztakeriaren bat edo beste egitea?

Bai, baietz uste dut. Ezberdina da, eta gauzak aldatu egiten dira. Hazi ere egin gara. Gaztetan, beste izaera bat daukagu, ondo pasatzea baino ez daukagu buruan, baina bai, batzuetan faltan sumatzen da hori.

Reala ondo dabilenetik, telefonoak maizago jotzen du?


Alde horretatik, zorte apur bat daukat, normalean jende bertsuak deitzen didalako. Horrez gain, poltsikoko telefonoa itzali egiten dut noizean behin. Baina bai, igartzen da jendea pozik dagoela.

Hala ere, joan den urteko deiek balio handiagoa izango dute, ala?

Horrelako gauzak beti gertatzen dira buruan. Edozein lanetan, baita bizitzan ere, gauzak aldeko daudenean lagunak leku guztietatik azaltzen dira. Une txarretan ondo-ondoan egoten direnek balio handiagoa dute, eta horiek ez dira sekula ahazten.

Goialdean beste lasaitasun batekin ikusiko dira gauzak.

Bai, beste kontu bat da. Gauzak ondo doazenean, lan egiteko erraztasun handiagoa edukitzen da, konfiantza handiagoa, azken baten. Taldean ere beste giro bat nabari da, eta guk argi daukagu une hau gozatzeko unea dela. Bestalde, gauzak aldatu ere egin daitezke, baina irauten duen bitartean disfrutatu egin behar da, lehen ere nahikoa sufritu dugu-



XABIER URZELAI

“Gazte denboretan egiten genituenak faltan sumatzen ditut, baina hazi ere egin gara-eta...”

eta.

Ez dut uste Realaren meritu osoa kanpotarrek bakarrik daukatenik.

Beti saldu izan da hori, eta ez dut uste hori taldearendako ona denik. Barruan gaudenok argi daukagu hori ez dela horrela. Argi daukagu kanpotarrak taldearen zati garrantzitsu direla, baina talde bat gara, eta norbait ez dagoenean, ziur egon atzetik

“Gauzak ondo doazenean, lan egiteko beste lasaitasun bat edukitzen da”

datorrenak ere gauzak ondo egingo dituela.

Kanpotarrak hona etortzen direnean, ezin hobeto egoten dira, horretaz arduratzen gara-eta. Etxea, lagunak eta familia atzean utzi eta jokatzera kanpora joatea oso gogorra da. Niretako oso gogorra izango litzateke, eta horregatik arduratzen naiz kanpotik norbait datorrenean ahal dudana guztian laguntzen.

“Aurrendenboraldi gogorra egin dugu aurten, eta jendea oso inplikaturik ikusi dut”

Azken urte hauetan Aitor izan da ondoen ibili den jokalarietako bat. Orain ere maila onean, baina beste batzuk protagonistak. Hobeto horrela?

Askotan, hori pentsatzen dut. Hobeto dela diot, tipo arrunta naizelako, eta nire irudia edozein lekutan ikustea ez dudalako atsegin. Horrez gain, norberaren gainean berba asko egiten dutenean, ardura handiagoak ere iza-

ten dira. Ni lasaiago nago horrela, baina, era berean, lana ondo egiten denean jendearen esker ona jasotzea polita izaten da.

Ematen du Donostia aldeko kazetari batzuek, maiz, Aitorren gainean berba egiterakoan beste partidua bat ikusi dutela.

Bueno, horretara ere ohitu naiz. Behin baino gehiagotan gertatu izan zait, partidua egin, oso gustura geratu, baina egunkarietan horrelakorik ez azaltzea. Horren kontra ezin dezaket ezer egin, baina ez diot garrantzi handirik ematen. Hori horrela da, eta horrekin bizi behar...

Aurtengo aurrendenboraldian ze arraio egin duzue?

(Barreak). Korrika asko, mendian gora eta behera ibili gara. Lana oso ondo egin dugula uste dut, eta, horrez gain, taldea asko inplikatu dela ikusi dut. Hasiara batetik argi ikusi zen jendeak lan egiteko gogoia zeukala, eta entrenatzaileak zeresan handia izan du horretan. Ez da ohiko entrenatzailea, gurekin berba asko egiten du, norberaren ikuspuntua jakin gura izaten du, eta horrek asko laguntzen du, konfiantza ematen du-eta. Horrez gainera, partidua ondo gainbegiratzen ditugu.

Gaur egun futbola erlijioa bada, Anoeta eliza egokia da?

Guk betidanik esan dugu publikoaren berotasuna oso garrantzitsua dela. Beste zelai batzuetara joaten garenean, argi ikusten da atletismoko pista izatetik ez izatera alde handia dagoela. Gainera, zaleak hurbilago egongo balira, zaleek eurek ere beste modu baten bizi izango litzukete partidua.

Joan den denboraldi amaieran Tenerifen edo Zaragozan izan ziren istiluak Gipuzkoan ere gerta litezke?

Ez dut uste, baina, agian, Tenerifen eta Zaragozan ere berdin pentsatuko lukete. Hura sekulakoa izan zen, eta batek daki horrelako egoera baten jendearen erreakzioa zelakoa izango zen. Nik uste dut hemengoak beste pasta batekoak garela, baina egia da taldea bigarren mailara jaisten bada probintzia horrek asko galtzen duela. Jendeak futbola emozio handiarekin bizi du.

Behoko postuetan zeundetenean, zenbatetan amestuzenuen beste lanbide baten jardutea?

Bada, behin edo behin bai. Norberaren gainean astero-astero jendeak balorazioa egiten dutenean, askotan, nekagarria da. Behoko postuetan izan garen urte



XABIER URZELAI

hauek ez dira urte oso goxoak izan, eta jendeak, batzuetan, gura barik, min handia egin dezake. Niri min egitea gauza bat da, baina ingurukoek ere sufritu egiten dute, eta hori ez dut atsegin, hots, nigatik ingurukoek ere sufritzea. Edozelan ere, horrelakoetatik ere ikasi egiten da, eta horrelakoak ere bizi egin behar dira.

Futbol kontuak amaitzen direnean, zer egingo du Aitorrek?

Gauzek ondo jarraitzen badute, oraindik urte batzuk geratzen zaizkit, baina futbola amaitzen denean ez dut uste geldirik egongo naiz. Uste dut ikasketak bizitza honetan oso garrantzitsuak direla, eta nik gaztetan ez nien kasu handiegirik egin. Argi daukat futbola amaitzean kirola egiten jarraituko dudala, biziki gustuko dudalako, baina ikasteko asmoa ere badaukat. Elikaduraren esparrua oso interesgarria iruditzen zait, eta, esate baterako, Dietetika eta Nutrizioa ikasiko nuke gustura.

Domeka goiz bat pasatzeko, Zubietara ala Zaldibara?

Zaldibar, inongo duda barik. Zubietara, azken baten, lantokia da, eta Zaldibar, berriz, guztiz alderantzizkoa. Zubietan jokalarri gazteen partiduak askotan ikus-

“Nekagarria da astero norberaren lanaren balorazioa egiten dutenean, baina ohituta gaude”

ten ditut, euren ere garrantzitsua izaten delako, baina Zaldibarren lagun artean egoten naiz, eta guztiz ezberdina da.

Bueltara emateko, Donostiara ala Arrasateko alde zaharra?

Ezberdinak dira, oso ezberdinak... Herri bakoitzarengatik sentitzen dudana kontuan hartuta, Arrasate aukeratuko nuke, duda barik.

Futboleko bizi izan duzun une hunkigarri bat?

Bereko sarri izango da, baina golak egiterakoan bizi izan ditut une hunkigarrienak. Realeko talde nagusian nagoenetik hiru gol egin ditut, eta gol bat egiterakoan sentitzen denak ez dauka parekorik.

Osa ezazu jokalarri ideala.

Ez da lan erraza, sekula ez dut-eta idolorik izan. Gaur egun, joka-

“Dietetika eta Nutrizioa ikasiko nuke gustura, oso esparru interesgarria da-eta”

laria azkarra izatea oso garrantzitsua da, eta Roberto Carlos da azkarrena; Xabi Alonsoren burua aukeratuko nuke, une bakoitzean badaki-eta zer egin behar duen; eta Luis Enriqueren erresistentzia eta izateko era, izaera; izan ere, talde batendako oso garrantzitsuena da izaera.

Aitorrek zer irakurriko luke gustura egunkari baten?

Gauza asko. Zerbait azpimarratu beharko banu, biolentziarik ez dagoela irakurtzea gustatuko litzaidake. Gaur, adibidez, tratu txarren aurkako eguna da (astelehenean egin genuen elkarriketa), eta lotsagarria da horrenbeste emakumeri gertatzen zaiena. Egunkarietan, askotan, beste gai asko eramaten dituzte azaletara, eta tratu txarren gaineko gaia, adibidez, egunero salatu beharko litzateke.

“Realak eta biok asmo berberak ditugu, baina akordioa egitea falta zaigu”

Eta ARRASATE PRESSen zer irakurriko zenuke gustura?

Arrasateko jendeari gauzak ondo doazkiola irakurriko nuke gustura. Horrez gain, zuei ere gauzak ondo doazkiuela irakurriko gurako nuke, eta umiltasun berberarekin lanean jarraitzen duzuela jakitea.

Auto berriarekin Arrasate eta Donostia arteko kilometroak errazago egingo dira.

Egia esan, gustura nabil. Hasiera baten, ez nion kasu handirik egin, baina orain, apurka-apurka, atzeko trakziara ohitzen ari naiz, eta gustura nabil. Hala ere, ez da lehenengo autoa hartzen denean bezala: lehenengo autoarekin sekulako ilusioa hartzen da, eta auto berriarekin ez dut ilusio hori izan.

Atxabalpe gustuko futbol

zelaia duzula entzun dizugu, baina gutxitan ikusten zaitugu han.

Ez pentsa, ahal dudan guztietan joaten naiz. Iaz erregional mailan aritu zen entrenatzailearekin harremana daukat, eta aurrean, gazte mailako entrenatzailea da. Ahal dudanean, Atxabalpera joaten naiz, niretako oso leku berezia da-eta.

Ume bati gozokia erakutsi baina ematen ez diozunean negarrez hasten da. Realzaleoi dagoeneko erakutsi diguzue gozokia.

(Barreak). Bai, horrela da. Ondo hasi dugu Liga, eta guk zera gura dugu: goian noiz arte izango garen pentsatzen ibili beharrean, jendeak une honetaz goza dezala, lehen ere nahikoa sufritu dugu-eta.

Eta, amaitzeko, ekainetik aurrera Aitorrek Gipuzkoako taldea defendatzen jarraituko du?

Bai, nik uste dut hori argi dagoela. Realak eta biok asmo berberak ditugu, hemen jarraitzea, baina oraindik ez dugu akordioarik egin, eta denbora luzeagoa behar dugu. Niri gustatuko litzaidake kontu hori lehenbailehen amaitzea, azken baten, nire etorkizuna delako.

HIRIGINTZA/ Gernika oinezkoen zumardia

Kanpanzarrerako bidea itxiko dute laster, zumardi berriaren zubia ipintzeko

UBANE MADERA

Udalak jakinarazi du datorren martitzenean eta eguaztenean Kanpanzarrerako bidea itxiko dutela. Kontua da oinezkoen zumardi berriaren zubia ipini behar dutela, Kanpanzarrerako errepidea gurutzatzen duen zubia, hain zuzen. Hiru egunean egin beharko dute lan.

Arrasatetik joan-etorria egiteko Kanpanzarko bidea erabiltzen duten auto gidariak adi ibili beharko dira datorren astetik aurrera. Izan ere, hiru egunez (abenduaren 3an, 4an eta 17an) aipatutako bide hori erabat itxiko dute, goizeko zortzietatik gaueko zortziak arte, hain zuzen. Halaxe jakinarazi digu Udaleko Hirigintza Sailak.

Esandakoaren arabera, Monterrondik Erguina doan oinezkoen zumardiaren zubia ipini behar dute aipatutako egun horietan, Zarugaldeko eta Erguingo zatiak lotuko dituen zubia, alegia.

HIRU ATAL

Kontua da zubi hori hogeit metro

luze diren hiru atalek osatzen dutela, eta, horren ondorioz, hiru egun beharko dituztela guztia muntatzeko. Esan bezala, abenduaren 3an, 4an eta 17an egingo dituzte lanak, eta, aipatutako data horien artean, Kanpanzarrerako errepidearen errai bat etenda izango da egunero, zubiaren hiru egiturak ipintzeko behar duten garabia han egongo da-eta.

MUSAKOLA-ERGUIN

Lan horiek egin eta gero, zubi horren eta zumardiaren beraren erremate lanak egitea bakarrik faltako zaie. Behin lanok bukatuta, posible izango da Musakolatik Erguin auzoraino oinez joatea, oinezkoendako bereziki egindako bidetik, autoen joan-etorrien traba barik. Eta horrela, Gernika oinezkoen zumardia izeneko pasealekuaren lanik handienak eginda izango dira.

Edozelan ere, lanok ez dira hortxe bukatuko. Asmoa da Erguin auzoan aurrera egitea Gernika oinezkoen zumardiak; hain zuzen ere, Erguingo Malvinetako etxebizitzaren ingurutik segituko du.



Zarugalde eta Erguin lotuko ditu zubi berriak; horren ondorioz, Musakolatik Erguinerainoko zatia ia eginda izango da.

Laubideko eta Garibaiko aparkalekuak berbagai Udalean

Azaroari dagokion osoko bilkura egin zuen atzo Arrasateko udalbatzarrak. Makina bat gai zituen zerrendan aurrez ikusita. Tartean, herrian eragina izango duten zenbait gai. Adibidez, Laubideko eta Garibaiko aparkalekuen konplexua egiteko, urbanizatzeko eta ustiatzeko aurreneko pausua ematea proposatu zion Hirigintza sailak udalbatzarrari. Horrekin batera, Erguin auzoa berriro urbanizatzeko proiektuaren barruan, lan batzuen adjudikazioa ere berbagai izan zuten zinegotziek; eta baita Udala auzoko egitamu bereziaren testu bateratuari behin-behineko onespina emateko proposamena ere.

EGUZKI ENERGIA ETA ATTAC

Bestalde, EEEren (Energiaren Euskal Erakundearen) proposamen bat ere aztertu zuten. Hain zuzen ere, eguzki energia fotovoltaikoaren instalazioetan laguntzeko eskatu diote udalbatzarrari.

Eta, bere aldetik, Ezker Batuak mozioa aurkeztu zuen, ATTAC taldeari atxikimendua emateko eta Tobin Tasa sortzeko proposamenarekin. Mozio horretan esaten dutenez, finantzaren globalizazioaren eraginez eze-gonkortasun ekonomiko handia sortu da munduan. Horren ondo-

rio dira Hirugarren Mundua izeneko herrialdeetan miseriaren areagotzea; eta Lehen Mundua izenekoan, berriz, ongizate estatuaren desagertzea. Horren aurrean herritarrek indargabe dardela-eta, talde mota ugari batzen dituen ATTAC izeneko taldea sortu zuten 1998an.

Talde horren helburuak honakoak dira: Tobin Tasa izeneko zergarekin truke merkatuetan egiten diren transakzio espekulatiiboak zergapetzea, paradisu fiskalak desagerraraztea eta kapital errenten gaineko zergak handitzea. Tobin Tasa, berriz, honako hau da: James Tobin izeneko Ekonomia Nobelak proposatu zuen epe laburrera egiten diren finantza transakzioak %0,1 eta %0,25 arteko tipoekin zergapetzea. Eta gero, tasa horrekin batutako dirua garapen ekonomiko jasagarria helburutzat duten programak sustatzeko erabiltzea, munduko desberdintasun sozialak eta ekonomikoak gutxitzeko.


Hortaz, hori guztia onartzea proposatu zuen Ezker Batuak.

Eta, horiek izan ziren, beste batzuen artean, udalbatzarrak landutako gaiak. Edozelan ere, albiste hau idazterakoan bilkura egin barik zegoenez, ez dugu jakiterik zein erabaki hartu dituzten zinegotziek.

LABUR

Zapatuko manifestazioan parte hartzeko deia

Bihar, zapatua, Donostian izango den manifestazioan parte hartzeko dei egin zuten zenbait herritarrek, prentsaurrekoan, eguaztenean. 30 bat lagun izan ziren; beste batzuen artean, Karlos Agirreurreta abeslaria, Aitor Lopez Rekarte futbol jokalaria eta Julen Arexolaleiba irakaslea. Haien esanetan, gero eta debekatutako dago manifestazioak egiteko eskubidea, eta, oro har, ezker abertzalearen ideiak kriminalizatzeko helburua dutela diote, bereziki, Euskal Herrian zein Arrasaten eman diren azkenaldietako zenbait gertakari ikusita. Horri guztiari erantzuteko beharra ikusten dute eta horregatik egin dute manifestazioan parte hartzeko deia. *Demokrazia Euskal Herriarentzat, autodeterminazioa orain izango da haren leloa.* Arrasatetik joateko autobusak izango dira. Horren harira, eguaztenean, Euskal Herriko Epaitegi Gorenak erabaki zuen bertan behera uztea Eusko Jaurlaritzak manifestazio horren gain ezarritako debekua. Hortaz, manifestazioak badu baimena.



Emakumeen kontrako indarkeria salatzen

Prentsaurrekoa eta kartelada izan ziren Emakumeen Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean, astelehenean. Emakumeek jasaten duten txarrak salatu zituzten, eta arazo horri aurre egiteko Udalarren zein herritarren konpromisoa erakutsi zuten. Han izan ziren, besteak beste, alkatea eta Emakume saileko arduradunak. Horrez gain, arazo horren kontrako Udalarren kanpainaren berri eman zuten prentsaurrekoan, tartean laguntza telefonoaren berri. Datozen egunotan ahalik eta herriko leku gehienetan ipiniko dute telefono hori, herritarrei helarazteko.



ATXA FAMILIAREN HIRUGARREN TOPAKETA

Lau urtean behin elkartzen dira Arrasateko Atxa familiakoak, eta 1998an egin zuten azken topaketa. Orduetik hona, lau urte pasatu dira, eta aurten berriro tokatzen zitzaizaien topaketa egitea, hirugarrena, hain zuzen ere. Ehun lagun inguru elkartu ziren urriaren 26an egin zuten topaketan, eta Kataluniatik ere etorri ziren Atxa familiako kideak. Goizeko hamaika eta erdietan,

Gorlako Altzasu Elkartearen elkartu ziren. Egurdiko hamabietan, hildako senitartekoaren omenez meza egin zuten, eta arratsaldeko ordu batean, trikitixak alaiturik Gorlatik ibilaldia egin zuten. Arratsaldeko ordu bi eta erdietan izan zen bazkaria, eta trikitixa ere izan zen. Esan barik doa egun esanguratsua bezain polita izan zela, eta orain, beste lau urte itxaron beharko dituzte.




Ba, milioi bat tokatu zait loterian eta jakin nahi nuke zer egin dezakedan diruarekin

Egun on Jauregi Jauna, Zer egin dezakegu zuregatik?

Ba, gure bankuan posibilitate asko dago; burtsan jokatu, tesoro baloreetan, epe finkoan jarri inbertsio, ea...

Geldi, geldi diruarekin ezin da jolastu, hobeto erdaraz egiten badugu. Gauza serioekin, ez da jolas egiten

EGIN DEZAGUN BAKOITZAK GURE AHALEGINTZA



Zahar Berri
Pablo Uranga 4, behea
Telf.: 943 711 721
943 771 228
zaharberri@aedeikartea.com

Mondrak, bi astean, taldearen onena eta txarrena erakutsi ditu

XABIER URZELAI

Ondarroan ederki ibili ziren, baina joan den astean, Arrasateko mutilek denboraldiko partidu txarrena egin zuten, Mutrikuren kontra. Aste baten ez da posible futboleko jokatzeko ahaztea, baina zelaira tentsio barik eta konfiantza larregirekin irteten denean, erraz galtzen dira partiduak.

Joan den astean, Mondrak 2-5 galdu zuen, Mutrikuren kontra. Bazirudien orain dela bi asteko partiduaren ostean Mondrak egin beharreko guztia eginda zuela, eta horrela irten ziren zelaira Josu Zubiaren mutilak, lasai asko, lo ez esatearren. Mutriku ez zen talde makal horietakoa, ezta gutxiago ere, eta zeuzkaten baliabideak ederki aprobetxatu zituzten mutrikuarrek: eskuin hegala eta joko gogorra, hain zuzen ere. Mondrako jokalariek zertan ari ziren konturatu zirenerako, Mutriku taldeak lehenengo gola egin zuen.

Joko aldetik argi zegoen Mondra taldeak emaitza horri buelta emango ziola. Asier Gonzálezek egin zuen banakoa, baina ordurako, Mutrikuko jokalariek egurrederki banatuta zeuzkaten, eta



AITOR URIZAR

Oraingo astean, Mondrak Intxurreren kontra neurtuko ditu indarrak.

epaileak ezer gutxi egin zuen hori eragozteko.

Lehenengo zatia amaitzeko bost minuturen faltan, mutrikuarrek, sarrera gogorrak egin, baloia erreperatu eta konturatu orduko euren aurrelaria atezainaren aurrean zen, berriz ere. Buruz buruko jokaldian Julio aurrelaria geldiarazten ahalegindu zen, eta epaileak penaltia adierazi zuen. Penaltia eta txartel gorria. Mondra hamar joka-

larirekin eta 1-2koarekin erretiratu zen aldagelatar. Bigarren zatian Mondrak erasora egin zuen, eta Mutriku kontraerasoetan beste hiru gol egin zituen. Mondrak bigarren gola ere egin zuen; eta bigarren zatian aukera garbiak izan zituzten, baina partidua ordurako galduta zegoen.

Horrelakoetatik ikasi egiten bada, merezi du hiru puntu galtzea, baina Mondrak ezin du etxean itxura hori eman.

FOTOKIROLA



Errugbian, partidua amaitu barik, etxera

Joan den astean, Arrasateko taldeak Irunen jokatu zuen. Irungo taldea aurreratu zen markagailuan. Joko zakarra izan zen nagusi, eta partidua amaitzeko hamar minuturen faltan, Irun 14-10 zen aurretik, baina arrasatearrak erasoan ari ziren buru-belarri. Bazirudien arrasatearrek emaitzari buelta emango ziotela, baina Irungo jokalaria batek Arrasateko jokalaria bati ostikada bat eman zion aurpegian, eta epaileak bertan behe-ara utzi zuen partidua. /X.U.

FOTOKIROLA



AGRk erraz irabazi zuen, eta Arrasatek 23-23 egin zuen, kanpoan

AGR Arrasatek 38-21 irabazi zion Bidasoari, Iturripen. Hasieran, kanpotarrak aurreratu ziren, baina etxeok lasaiago jokatzeko hasi, erreakzionatu, eta aurretik jarri ziren. Bigarren taldeak, Arrasatek, garaipena eskura izan zuen, baina epailea arduratu zen partidua nahasteaz: Arrasateko jokalaria bi kanporatu zituen epaileak, eta 23-23 bukatu zen lehia. /X.U.

ATLETISMOA

Javier Mentxaka eta Markel Blanco bikain ibili ziren Laudioko XIX. Krosean

Joan den asteburuan, Laudioko XIX. Krosa jokatu zen, eta atleta arrasatearrak ondo baino hobeto ibili ziren. Gizonezko beteranoetan Javier Mentxaka bigarrena izan zen, 4.850 metroetako proban. Infantil mailan, berriz, Markel Blanco atleta gaztea lehena izan zen, 2.650 metroko proban. Arrasatear gazteak bikain hasi du denboraldia. Bi lasterketatan hartu du esku, eta bietan ere lehenengo postuan iritsi da helmugara.

Arrasate Atletiko Taldeko atleten hurrengo proba bihar, zapatua, izango da. Anoetan izango dira, hainbat txapelketatan parte hartzeko gutxieneko markak gainditzeko asmoz.

XAKEA

Arrasateko xakelariak 3-1 galdu zuten Euskal Ligako lehenengo jardunaldian

Aurten, Arrasatek Euskal Xake Ligan talde bat dauka, eta joan den asteburuan jokatu zuten txapelketako lehenengo jardunaldia. Norgehiagoka Gasteizen izan zen, San Viator taldearen kontra, eta gasteiztarrek 3-1 nagusitu ziren. Arrasateko taldea Josu Torrayk, Txema Hernandok, Jesus Berezibarrek eta Isidro Ruizek osatu zuten.

Oraingo asteburuan, arrasatearrek etxean jokatu dute, Gasteizko Aranbizkarra taldearen kontra. Hasiara baten ez da oso talde gogorra; hortaz, mondragoetarrek irabazi egin beharko dute, gero ere izango dira-eta kontrario gogoragoak.

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate



ARRASATE PRESS

Kenci Arrasatek Barakaldoko Paules Carrefour taldearen kontra neurtuko ditu indarrak, bihar, zapatua.

SASKIBALOIA

Kencik ezin izan zuen denboraldiko hirugarren partidua irabazi

Liderrak, Padurak, argi erakutsi zuen zergatik dagoen lidertzan (104-83)

LABIER URZELAI

Kenci Arrasate saskibaloitaldeak ezin izan zuen hirugarren partidua segidan irabazi. Azkeneko bi partidua irabazi eta gero, bazirudien, nahiz eta liderra izan, Arrasatek partidua irabazteko aukerak izango zituela. Eta ondo hasi ziren, baina ez zen posible izan.

Arrasatearrak ahal zuten guztia egiteko asmoz kantxaratu ziren, argi zeukaten eta Padurari euren kantxan irabazteko ia guztia ondo egin beharko zutelako. Liderrak etxean oraindik ez du partidurik

galdu, eta domekan, argi geratu zen zergatik. Gogor hasi ziren arrasatearrak, eta lehenengo hamar minutuak pasatu eta gero, Arrasatekoak 18-30 ziren aurretik. Bigarren laurdenean ere arrasatearrek ondo eutsi zioten partiduari, nahiz eta Paduraren defentsak min handia egin. 38na erretiratu ziren aldageletara.

BIGARREN ZATIAN, BEHERA

Atsedendialdiak, baina, ez zion onik egin Arrasateko taldeari, taldeak behera egin zuen-eta. Horrez gain, epaileen erabakiek ez zioten Arrasateko taldeari batere onik egin, alderantziz, haien era-

bakiek min handia egin zioten Iker Zubiriaren taldeari. Bi epaileek Arrasateren kontrako hogeita falta adierazi zituzten, eta Padurakoek, berriz, sei falta baino ez zituzten egin. Hori gutxi izango balitz, epaileek lau teknika adierazi zituzten Iker Zubiriaren mutilei, eta partidua guztiz apurteza lortu zuten.

Oraingo astean, azkeneko postuan dagoen Paules Carrefour taldearen kontra jokatu dute arrasatearrek, Iturripen, eta hortxe eskuratu beharko dute arrasatearrek denboraldiko hirugarren garaipena, aurkari zailagoak izango dira-eta gero.

FOTOKIROLA



Arrasatearrak Maratoian

Donostiako Maratoian hainbat arrasatear izan ziren. Parte hartzaileek Internet bidez eman zuten izena Maratoian, baina datuak jasotzerakoan, webgunea ez dago behar bezala eginda. Arrasateko bost atleta hauen izena baino ez dugu aurkitu: Igor Martínez, Zigor Jiménez, Jose Luis Gascón, Gorka Fernández eta Iban Vitoria. Zorionak, bost atleta horiei eta zerrendan azaltzen ez diren gainerako arrasatearrei. /X.U.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Maldifa's	6-1
Goma-2 - Betraye	3-2
Rayo Aldeano - Makanaki	0-1
Abocajarro - Al Kaeda	3-9
Lasagabaster - Komando Alpagat	2-3
Iriztu Taberna - Etxerat	3-2
NS/NC - You Know!	3-3

B MULTZOA

El Ekipo A - Billy & The cowboys	2-5
Saloga - Koka Junior Basati	3-14
Dribling.es.vg - Bikain Akademia	2-6
Fraguel Gol - AC Surcos	4-16
Estu Ta Larri - Etxinai!	2-5
Whiskeria - AT Celaya	3-15
Fuxxion - Aurrera Bolie	4-2

PARTIDUAK

AZAROAK 30, ZAPATUA. EPAILEAK

09:50: Saukelu S.- Betraye.	You Know!
11:00: Lasagabaster - You Know!	Saukelu
12:00: El Ekipo A - K.Juniors.	Lasagabaster
13:00: AC Surcos - Saloga.	Koka Juniors
14:00: Maldifa's - Makanaki.	AC Surcos
15:00: Billy & The... - Bikain Akad.	Maldifa's
16:00: Fraguel Gol - AT Celaya.	Bikain Ak
17:00: Etxerat - Abocajarro.	Fraguel Gol
18:00: Iriztu tab - NS/NC	Abocajarro
19:00: Whiskeria - Fuxxion.	NS/NC

ABENDUAK 1, DOMEKA

10:50: Estu Ta Larri - Aurrera.Bolie.	Goma-2
12:00: Goma-2 - Al Kaeda.	Estu Ta Larri
13:00: Dribling - Etxinai!	Al Kaeda

Deskantsua: Komando Alpagat.

DAGOENKO TALDE BAT KANPORA

RAYO ALDEANO, TXAPELKETATIK KANPO

Zaldibarko Txapelketako 41. aldi honetan dagoeneko talde bat kanpoan dago. Aramaioko Rayo Aldeano taldeko lau jokalarik baino ez ziren azaldu joan den asteko partidura, eta taldea txapelketatik kanpo geratu da. Aramaioko taldea azken urteotan Zaldibarko talde onenetakoa izan da, baina badirudi aurten ez duela neurria eman, hamabigarren postuan zegoen-eta.

Bestalde, Komando Alpagat eta Lasagabaster taldeen arteko partidua oso gogorra izan zen. Komando Alpagatek gogor jokatu zuen, eta antolatzaileek talde horretako bi jokalarik zigortu egin dituzte. Jokalarik batek partidua bateko zigorra izango du. Beste jokalariek, berriz, bi jardunaldi egin beharko dituzte jokatu barik.

JOAN DEN ASTEAN, ARRASATE PRESS-EK EGIN ZUEN KALE

Joan den astean ez ginen bat ere fin ibili Zaldibarko txoko honetako taulak egiterakoan. Sailekapeko postuak ondo zeuden, baina jardunaldiko partiduen hitzorduak ez genituen ondo jarri. Guk ere akatsak egiten ditugu; hortaz, barkamenak, guztioi.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA
Intxurre - Mondra Erregionala. Zapatuan. 15:30. Alegian.
Burumendi - Mondra Ohor gazt. Zapatuan. 15:00. Mutrikun.
Arrasate - Mutriku Kadeteak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.
Arrasate B - Aretxabaleta B 2. kadeteak. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.
Arrasate Zumaiaiko Infantilak. Domekan. 11:00. Atxabalpen.
Aretxabaleta - Mondra Neskak. Zapatuan. 15:30. Almenen.

ERRUGBIA
Arrasate - Hernani Seniorrak. Domekan. 10:30. Garagartzan.

SASKIBALOIA
Kenci Arrasate - Paules Carrefour Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Kenci Arrasate - Aloña Mendi Jun giz. Zapatuan. 16:00. Musakolan.

Kenci Arrasate - STL Etxaun Kadet mut. Zapatuan. 12:00. Musakolan.

ESKUBALOIA

Urola - AGR Arrasate Lehen seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.
Arrasate - BKL CAF Bigarren seniorrak. Domekan. 12:00. Iturripen.

EMAITZAK

FUTBOLA
Erregionala: Mondra - Mutriku 2-5

SASKIBALOIA
Seniorrak: Padura - Kenci Arrasate 104-83

ERRUGBIA
Seniorrak: Irun - Arrasate 14-10

ESKUBALOIA
AGR Arrasate - Bidasoa 38-21

LITERATURA / Apokalifin Kultur Elkarteak 'Putz' aldizkariaren 17. zenbakia kaleratu du

'Putz' aldizkariaren hamazazpigarrena salgai liburu dendetan eta tabernetan

IKER BARANDIARAN

Putz aldizkariaren hamazazpigarren zenbakia Euskal Herriko tabernetan eta liburu dendetan salgai dago dagoeneko. Apokalifin Kultur Elkarteak kaleratu duen azkeneko aldizkariak, besteak beste, globalizazioaren eraginak eta *teknorotismoa* landu ditu.

Apokalifin Kultur Elkarteak bi hilean behin kaleratzen duen *Putz* aldizkariak hamazazpigarren zenbakia kalean du dagoeneko. Azala J. Kalvellido marrazkilari ezagunak egin du, eta azalean bertan *Capitán América* eta *Cid Campeador* marraztu ditu, gaur egun nazioartean bizi den egoera gogora ekartzeko.

Putz-ekoek elkarrizketa nagusia Berri Txarrak taldeko abeslari Gorka Urbizuri egin diote. Gaztetxotatik gaur egunera arte musikari horrek bere bizitzako pasarteak azaltzen ditu *Putz*-en. Nabarmentzekoa da, era berean, *Putz*-ekoek Ibarretxe eta Iturgaitz bertsoan jarri izana.

Kolaborazio bereziak ere izan

dituzte: horra hor, esate baterako, Mexikoko Naief Yehyak *teknorotismoa*-ren gainean idatzitako artikulu mardula edo *Amets patriotikoa* izeneko gogoeta kritikoa. Marko Antonio Sainz de Acedok ere ez du kalerik egin, eta edanaren eta gidatzearen gaineko gogoetak eraman ditu aldizkariara.

IPUIN EROTIKOA ETA POESIA

Zenbaki berri horretan ere bada-gu kutsu erotikoa daukan ipuinik; Diego Martiartuk idatzitako *Maitemina* eta ezezagun baten *Ondo pasa genuen!*, hain zuzen ere. Eta Sumendi delako batek eta Paddy Rekaldek ere hainbat poema idatzi dituzte.

Betiko moduan, Apokalifin Kultur Elkartekoek hiru euroren truke, besteak beste, umorea, ironia, kritika eta erotismoa batu dituzte berrogeita hamabi orrialdetan. Badu bai, zer irakurri *Putz*-en zenbaki berri horrek. Eta zu zeu idatzi hau irakurtzen ari ziren bitartean, Apokalifin Kultur Elkartekoak Durangoko Azokarako hainbat sorpresa prestatzen ibiliko dira dagoeneko.



'Putz' aldizkariaren azalak gaur egungo nazioarteko gertaerak gogora ekarri ditu.

Kalvellidok 'Putz'-en azalera 'Capitán América' eta 'Cid Campeador' eraman ditu

Elkarrizketa nagusia Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizuri egin diote

Paddy Rekalderen, Naief Yehyaren eta beste hainbaten idatziak batu dituzte

Azaroko zozketaren irabazlea: Conchi Heis.

Saria Zubizarreta-Galería 44 dendan banatu da.

Segi erosten Ibai-Arteko dendetan eta irabaz ezazu

3.000 euroko sari berezia!



Loramendi kirolak -en

INTERSPORT Bezero txartela!!



- %5eko deskontua
- Katalogoa eta opari-txekeak
- Eski estazioetan deskontuak
- Finantzaketa, doan
- Eta askoz abantaila gehiago

Zatoz eta eskatu zure txartela, doan!!!

**ARRASATEN
EMAKUMEEEN
AURKAKO
ERASORIK EZ
943 79 09 00**

ZURI LAGUNTZEKO GAUDE

ELKARRIZKETA

ENEKO BARBERENA/IDAZLEA

“Askok ez dute aldizkarietan eta fantzineetan idazten. Pena da”

IKER BARANDIARAN

Eneko idazlea zeresan handia ematen ari da. *Putz*-en eta ARRASATE PRESSen idazteaz gain, *Bolo-Bolo* aldizkariaren Azken Agurren Lehiaketan lehenengo saria irabazi du, eta berehala liburu bat argitaratu behar du.

Noiz hasi zinen idazten?

Eskolako lanez gain, Musakolako gazte txokóan nabilela, *Fight the power* izeneko fantzine bat egin genuen. Han hasi nintzen benetan idazten, hamabost urterekin.

Zerk bultzatzen zaitu idazterako orduan?

Denok daukagu barruan daramaguna adierazteko beharra. Batzuek grafitiak egiten dituzte, beste batzuek musika egiten dute. Nik idaztea aukeratu dut.

Lehiaketa askotan parte hartu duzu?

Egia esan, ez. Ez naiz lehiaketan oso aldekoa, jende askok lehiaketetan bakarrik parte hartzen duelako eta, aldiz, aldizkari eta fantzineak alde batera uzten dituelako. Dena dela, Ondarroako *Bolo-Bolo* aldizkariaren lehiaketa bitxia iruditu zitzaidan: testamentu edo azken agurren gainekoa da, eta azken orduan parte hartzeraz animatu nintzen.

Baina iraganean, gazteagoa zinenen, inoiz parte hartuko zenuen Arrasate Lehiaketetan...

Bai, noizbait parte hartu izan dut, baina ez dut fruiturik jaso.

Zer motatako idatziak egiten dituzu?

Bernardo Atxagak esan zuen moduan, *Hautsi da anphora*; hau da, nire barruan dauden hamaiaka Eneko edo pertsonaia desberdinek bakoitzak era bateko testuak idazten ditu: batek, ARRASATE PRESSen, tonu baten; beste batek, *Putz* aldizkarian; ipuinak beste erregistro baten...

Eta zure ipuinak zelakoak dira?

Helburu irakurlea ustekabean harrapatzea da. Dauden topikoekin jolastu egiten dut: familiarekin, sexu-harremanekin... Beti beste buelta bat ematen ahalgintzen naiz.

Zein idazle dituzu gustuko?

Pako Aristi oso ona da, Diego Martiartuk idazten duena ere oso gustuko dut. Hego Amerikako idazle batzuk ere nabarmenduko nituzke: Julio Cortázar, Monterroso... Unai Elorriaga ere idazle ona da; saria jaso aurretik *SPrako tranbia* irakurri nuen, eta biziki gustatu zitzaidan.

Bolo-Bolo-ko lehiaketaren berri *Sustatu.com*-en bitartez



IKER BARANDIARAN

“24 ipuin batzen ditu ‘Irogailuak, Dow Jones eta beste droga batzuk’ liburuak”

izan zenuen?

Bai, hala da. Interneten nabilela, hantxe aurkitu nuen. Dena dela, *Sustatu.com* aipatu dugunez, komeni da gauza bat argitzea: *Goienkaria*-n agertu zen *Sustatu*-n idazten dudala, baina ez da egia. Eneko izenarekin sinatzen duen lagun bat dago, baina ez naiz ni.

Putz aldizkariako erredakzioan ere bazabiltza. Noiz eta zelan ezagutu zenituen Apokaliftin Kultur Elkarteak?

Bitxia izan zen. Hasieran, gaitzizenekin sinatutako idatziak bidali nizkien. Gero, elkarrekin harremanetan jarri ginen, eta orain arte. *Putz*-en oso gustura nabil. *Putz* eta horrelako aldizkariak idazteko aukera ematen digute ni bezalako gazteoi.


“Nire barruan dagoen Eneko bakoitzak era bateko testuak idazten ditu”

Beste nonbaiten idazten duzu?

Bai, ARRASATE PRESSen eta *Abian* ikasle-aldizkarian. *Ekintza Zuzena* aldizkariara ere ipuin pare bat bidali ditut. Euskaraz idazten dut, gaztelaniaz erraztasun handiagoa badut ere.

Eta liburu bat argitaratu behar duzu laister...

Bai: *Irogailuak*, *Dow Jones eta beste droga batzuk*. Dagoeneko inprentan dago. Apokaliftin Kultur Elkarteak argitaratuko du, eta Durangon aurkeztuko dugu. Hogeita lau bat ipuinez osatuta dago, eta surrealismoarekin jokatzen dut. Izenburua jartzerakoan, Sarrionandiaren liburu baten eta Xabier Montoiaren disko baten izenburuan oinarritu naiz.



ARRASATE PRESS

Kukubiltxok plazaratzen duen hogeita zortzigarren lana da.

Kukubiltxo taldearen ikuskizun berria, Arrasaten

I.B.

Kukubiltxo taldeak hogeita bost urte bete ditu, eta hori ospatzeko, *Ekidazu, lehoiek ez dakite bibolina jotzen izeneko* lana estreinatu berri dute. Bihar, zapatua, emanaldia egingo dute, Amaia Udal Antzokian, 17:00etan. Umeen-dako eta nagusien-dako da.

“*Ekidazuarrek*, asto arrantzari-kantariak, abereetako bazter guztiak argitzen dituzten euren musika doinuekin. Baina, egun batean, *Piztiaga&Co* multinazionalak merkataritzagune handia erakiko du han, eta herriko bizimoduak goitik behera aldatuko da”

Horrela azaltzen du Kukubiltxo taldeak *Ekidazu, lehoiek ez dakite bibolina jotzen izeneko* ikuskizun berriaren bilbea.

txo taldeak *Ekidazu, lehoiek ez dakite bibolina jotzen izeneko* ikuskizun berriaren bilbea.

Kukubiltxo taldeak hogeita bost urte bete ditu, eta urteurren berezi hori ospatzeko prestatu du lan hori. Mikel Zarate idazle bizkaitarraren *Ipuin antzeko alegi mingotsak* liburuko *Ekidazuko astasendia* alegia hartu du oinarri Kukubiltxok. Eta ikuskizun musikal horretan alegiaren mingotsa eta umorearen gozoa uztartu dituzte.

Dagoeneko Kukubiltxok 28 ikuskizun plazaratu ditu, eta, azkenaldian, txotxongiloekin lan egiteko ohitura handia hartu du. Lan horretan zazpi pertsonaia garrantzitsu agertuko dira, eta 25 pampina erabiliko dituzte.

KULTURAPILULAK

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak ‘Los Gavilanes’ zarzuela eskainiko du

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa beste zarzuela bat prestatzen dabil. Ikuskizun berria *Los Gavilanes* da, eta hiru egunean eskainiko dute: abenduaren 13an, egubakoitza; 14an, zapatua; eta 15ean, domeka. Emanaldiak Amaia Udal Antzokian izango dira, 19:30ean. Zarzuelaren zuzendaria Tere González da, eta Alfredo González Chirlaquek zuzendutako Bergarako Orkestra Sinfonikoaren laguntza izango dute. Sarrera hamabost euro kostako da, eta abenduaren 2tik aurrera jarriko dituzte salgai, Arrasateko Zabaleta lurrindegian eta Monte tabernan eta Bergarako Guria tabernan.

Arrasateko Musika Bandako musikari beteteranoek bilkura berezia egingo dute

Arrasateko Musika Bandako musikari beteteranoek bilkura berezia antolatu dute biharko, zapatua, herrian. Arrasateko Musika Banda 1974an desagertu zen, eta ordutik hona, ez dira berriro batu orduko musikari guztiak. 1960tik 1974ra arte Bandako zuzendari izandako Juanito Arzamendik partaide guztiak batu, eta kalejira eta emanalditxo bana egin gura zuen, eta horretarako prestakuntza lanetan hasiak ziren.

Zoritxarrez, osasun arazoengatik, ezin izan dituzte prestatu kalejira eta emanaldia. Hala ere, Espainiako Estatuan barrena bizi diren berrogei bat lagun elkartzeko dira. 12:00etan, San Franziskon, hil diren hamazortzi musikarien omenezko meza entzungo dute, eta 14:00etan, bazkaria egingo dute, Hilarionen.

E, TXO!

GUREGAIK/ ATERPETXEAK

Espainiako Estatuko aterpetxeen elkarteak aldizkaria sortu du

AINTZANE IRIZAR

Gazteendako Espainiako Estatuko aterpetxeen elkarteak aldizkaria argitaratu du: *Albergues juveniles* izeneko aldizkaria. Urrian kaleratu zuten lehendabiziko zenbakia, eta hilabetekaria izango da.

Gazteendako Espainiako Estatuko aterpetxeen elkarteak aldizkaria kaleratu du orain dela gutxi. Aisialdiarekin, gazteekin, aterpetxeekin, turismoarekin eta musikarekin lotutako hainbat gairen gaineko informazio, albiste eta erreportajeak landuko dituzte, besteak beste, eta horrelakoxe albisteak topatuko ditugu lehendabiziko zenbaki horretan ere. Urriko zenbakian topa dezakegu: ireki berri dituzten aterpetxeen gaineko albisteak, bisita ditzakegun lekuen gainekoak edo elkartasun kanpainen gaineko informazioa.

ESTATUKO 200 ATERPETXE

Berrehun aterpetxe osatzen dute elkarte hori; horietatik, 23 Eus-

Aterpetxeen elkartearen txartela egitea bost euro kostatzen da, eta abantailak ditu

kal Herrikoak dira. Euskal Herrikoen artean, Bilboko 1998. urtean zabaldu zuten, ikasleen egoitza bat birziklatu ondoren; eta, urte bat geroago, 1999an, kalitatearen ISO 9002 ziurtagiria eskuratu zuten. European agiri hori jasotzen zuten lehenengo aterpetxeak izan zen Bilbokoak.

ATERPETXEETARAKO TXARTELA

Bost euroren truke aterpetxe txartela egiteko aukera eskaintzen die aterpetxeen elkarteak 30 urtetik beherako gazteei. Esan beharra dago 26tik 30era igo dutela aurreko elkarteak aterpetxeetako txartela egin dezaketenen adina. Iza-



ARRASATE PRESS



Euskal Herrian hainbat aterpetxe daude; horien artean, Gorkizkoa.

tez, aterpetxeak adin guztietako lagunendako egoten dira zabalik, baina aterpetxeen elkarteko txartela edukitzea ia derrigorrezkoa izaten da gaua aterpetxean igarotzeko. Are gehiago, 26 urte baino gazteagoak direnek lehentasuna izango dute.

Beste ostatu mota batzuekin

alderatuta, aterpetxeak merkeagoak dira, eta gazteendako proposenak, hain zuzen ere. Bost euroren truke merezi du txartela egitea, baina ez ahaztu aterpetxean ostatu hartzean beste salneurri bat ordaindu beharko dela. Informazio zabalagoa gura izanez gero: www.reaj.com.

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN KONPONKETAREN GAINEKO EMAKUMEENDAKO IKASTAROA



Lana zure eskura izango duzu!

IZENA EMATEKO EPEA :

2002ko abenduaren 6ra arte,

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan.

Tel : 943 79 09 00



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila

BEHEKOTABERNATIK

Ezequiel Gómez

LORATEGI TABERNAKUE

XABIER URZELAI

Denpora luzien itxitte egon eta gero, Ezequielek, anaiakin batera, barrero be zabaldu dau Lorategi tabernie. Urtarrillien itxi euen tabernie, eta arazo bat baiño gehiago euki daue barrero be zabalketako. Tabernaren itxurie barritu daue, baiñe, haren esanetan, betiko Lorategi da, aldaketa haundi barik.

Amets bat?

Lan egin barik bizi izetie.

Eta amets txar bat?

Heriotza kontuek-edo.

Egin dozun azken biajie?

Extremadurara.

Txartel horixe, zeñei?

Taberna batetik bestera kalien konportetan ez dakixenei, horrein erruz arazuek eukitten dittugu-eta.

Eta gorrixe?

Futbolari, jeneralien.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Pelikula txinatarrak gustetan jat / *Los pilares de la tierra* / Jazz fusiñuek gustetan jat.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai, nik neuk be drogen kontue hurbilletik bizi izen dot-eta.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Oin, ez bata ez bestie.

Etxeko zapatillek ala zapat-ak?

Ortozik.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Dana eta ezer be ez.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Karreteran jarri dittuen horreik koxkok kenduko nittuke.

Eta lehendakari izengo bazitze?

Lehendakarixek ze egitten dau, ba?

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Errepublika Dominikarreko monja bat.

Eta ezagutu nahiko zeunke-



X.U.

“Lorategi barriztu egin dogu, baiñe betiko Lorategi da; aldaketie lehenago etorri zan”

ena?

Txinatarren bat-edo.

Tranpan ibiltteketan nor-baittekin, zeñekin?

Zela ibilliko naz tranpetan, neskalagunik be ez dauket-eta!

Bizio bat?

Lo egittie.

Mendi bat?

Udalatz gustetan jat.

Ze dauketzu sobran?

Tripie.

Eta faltan?

Neure burue zainketako inder haundixague.

Bizi izetara hiri batera juetektan, nora?

Zoratute be ez nitzake juengo hiri batera bizi izetara.

“Jentiek entzun gure dauena jarten dogu tabernan; horretan asko ahaleginketan naz”

Telebisiñoko programa bat?

Telebisiñue gutxi ikusten dot.

Eta irratikue?

Los 40entzuten dot, baiñe ez gustetan jatelako; tabernan ze jarri jakituko entzuten dot. Horri inportantzia haundixe emuten dutzet, egunien egotie gustetan jat-eta. Jentiek ondiokan pentsetan dau bakaladerue nazela, baiñe horreik aspldiko kontuek die.

Oingo Lorategin, lore barriek ala lehenguek?

Lehengo lorategixe da, baiñe barrittute.

Lorategin lan egittiek daukon gauza onena?

Zapatu gabetan, lanien, ondo pasetan dotela.

NIREBIDAIAHURA/ Aitor Madinabeitia

Mexikora / 2000n, udan


Aitor Mondragoeko beste lau lagunekin abiatu zen Mexiko aldera, eta han, beste lagun batekin elkartu, eta seirok ibili ziren Mexikon barrena. Uztailaren 22an iritsi ziren Mexiko Hirira, eta hango aireportuan aurkitu zuten lehenengo gauza harrigarria: “Aduana pasatzeko botoi bat sakatu behar da, eta semaforoa gorri jartzen bada, miatu egiten zaituzte; bestela, aurrera. Guk ez genuen arazorik izan, baina kurioa da, loteria antzekoa da-eta”.

Mexikoko hiriburuan kontu handiz ibili ziren: “Hasiera baten beldur apur batekin joan ginen, bagenekielako Mexikoko hiriak ez direla brometako kontua. Delinkuentzia handia dago han, baina guk ez genuen inongo arazorik izan”. Gero, handik Pueblara joan ziren. Bartzelonan jokatu zuen Bake-rok Pueblako futbol taldean egin zituen jokalariz bizitzako azken urteak.

Berrogei egunean bisitatu zituzten herri, oihan, hondartza, leku eta paraje guztiak aipatzea ezinezkoa da, zerrenda luzea da-eta. Orokorrean esateko, Mexiko oso leku interesgarria iruditu zitzaion Aitorri; “Mexikora joaten denak denetik dauka: hondartza nahi duenak Karibeko kostaldean nahi adina hondartza eta eguzki izango du; oihanean gora eta behera ibili nahi duenak ere aukera paregabea dauka; indigenen egoera zein den ikustea atsegin duenak bertatik bertara dauka guztia; eta garai baten maiek egin zituzten eraikinak ikusi nahi duenak aspertzeko nahi adina eraikin dauka ikusgai”.

Oso eraikin ikusgarriak dira maiek egin zituztenak. Hori guztia oso ondo esplotatuta daukate, baina ez daukate dirurik ikerketak egiteko: “Argi dago europarrek sekulako triskantza egin zutela han. Euren aberastasun asko lapurtu egin zieten, eta mexikarrei min handia egin die horrek”. Sekulako beroa izan zuten Mexikon, eta itzultzekotan iparraldera joko lukeela dio Aitorrek. Edozelan ere, dagoeneko badituzte beste proiektu batzuk.

XABIER URZELAI



Maiek egindako eraikin bat, Chichen Itzan herrian.



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak

Ateak

Armairu enpotratuak

Armairu-fronteak

Mota guztietako zoruak

Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiakErakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20BITTORI
ERRETEGIAEguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak


Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

90 urtetik gorako Abaroako bazkideak oso gustura ibili ziren Abaroa elkarteak antolatutako omenaldian.

90 urtetik gorako Abaroa elkarteak bazkideak omendu zituzten

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Abaroa zaharren elkarteak batzarrak elkarteak 80 urtetik gorako bazkideei omenaldia egiteko ohitura dauka. Aurten, ordea, 90 urtetik gorakoei egitea erabaki zuen. Izan ere, geroago eta lagun gehiago heltzen dira adin horretara, eta horiei omenaldi berezia egitea erabaki zuten Abaroa zaharren elkarteak bazkideek. Abaroa elkarteak 45 bazkidek daukate 90 urte baino gehiago: hamaika gizon eta hogeita hamabost emakume, hain zuzen ere.

ALKATEA, PARROKOA ETA ABAROAOKAK

Abaroako batzarrak joan den martitzenean, azaroaren 26an, berrogeita bost lagun horiei Abaroara joateko gonbita egin zien. Adin horretako lagun batzuk kalera gutxitxo irteten dira, baina mordoska bat bildu zen omenaldi egunean Abaroan. Edozelan ere, joaterik izan ez zuten euren senideen bitartez jaso zituzten opariak.

Lehenik eta behin, Arrasateko alkate Xabier Zubizarretak, Abaroako presidentea Juan Luis Lizarralde eta Arrasateko parroko Genaro Lekuonak omenduei berba batzuk egin zizkieten. Juan Luisek oso berbaldi hunkigarria egin zuen, eta adinduendako eta euren senideendako esker oneko

Telebista eta argazki-kamerak

Maria Mondragón Zubiak datorren urtean, martxoan, ehun urte beteko ditu, eta hark jaso zituen opariak lehenengo. **Eta GOITBko kamerak eta argazki-kamerak ere Maria Mondragón Zubiak harrapatu zuten lehenengo.**

Dena dela, gainerako omenduek ere ikusminarekin eta irribarretsu begiratzen zieten kazetariari eta kamerateari.

hitzak izan zituen. Xabier Zubizarretak Abaroako batzarraren lana goraiatu zuen, eta Arrasateko gazteek geroago eta urte gehiago betetzen dituztela nabarmendu zuen. Azkenik, parroko berriak, Genaro Lekuonak, azaldu zuen haren eliza kanpoko lehen ekintza ofiziala zela, eta denbora luzean gogoan izango duela. Horrez gainera, omenduei aholkua eman zien bizi behar ditugun urteak ondo bizi izaten ahalegintzeko.

Berba horiek entzun ondoren, Abaroako batzarreko Jose Rivierek omenduen zerrenda hartu zuen, eta bazkideek, banan-banan, 90 urtetik gorakoei opariak eman zizkieten: kolonia, gel eta bestelakoen kit bana eta txokolatina kaxa bana. Han bildutakoek pozik hartu zituzten opariak. Euren izena entzun ahala, edadetu guztiak irribarretsu. Opariek oso itxura ona zuten, eta, zer demontre, beti da pozgarria opariak jasotzea. Edadetu batek baino gehiagok "ni naiz, ni naiz" oihukatu zuten euren izena entzutean.

LABUR

Uribarriko zaharren elkarteak, oinordetzen eta testamentuen gaineko berbaldia

Uribarriko zaharren elkarteak oinordetzen eta testamentuen gaineko berbaldia antolatu du, datorren martitzenean, abenduaren 3an, 17:00etan. Berbaldia Uribarriko zaharren elkarteak bertan izango da, eta aditu batek oinordetzen eta testamentuen gaineko azalpenak emango ditu. Horrez gain, abenduaren 13an, 17:30ean, elkarteak bazkideek txokolate-jana izango dute.

Uribarrikoek Bilbora, Santo Tomaseko azokara, txangoa antolatu dute

Abenduaren 20an, Uribarriko zaharrek txistorra-jana antolatu du, elkarteak bertan. Horrez gain, abenduaren 21ean, Bilbora, Santo Tomaseko azokara, txangoa prestatu dute. Autobusa 09:00etan irtengo da. Autobuseko txartelak abenduaren 9an, 16:30ean, emango dituzte, zozketa bitartez. Horregatik, inor ez dadila goizetik txanda hartzera joan. Txartela hamazortzi euro kostako da.

ZAHARREN AHOTIK

Paquita Castaño

ERRETIRATUA

Paquita Castaño Simancasen jaio zen (Valladolid). 13 urterekin zerbitzari lanetan hasi zen. Geroago, Bergaran etxe baten lanean hasi zen.



Non jaio zinen?

Simancasen (Valladolid) jaio nintzen, 1939an. Zazpi anai-arreba ginen, eta neu nagusia naiz. Horregatik, eskolara oso gutxitan joan nintzen. Anai-arreba askotxo ginen, eta nekazari-lanak egin behar izan genituen, baita anai-arreba txikiak zaindu eta etxeak lanak egin ere. Geroago, hamahiru urte bete nitueanean, Salamancan eta Madrilin zerbitzari lanak egiten ibili nintzen.

Eta nolatan bukatu zenuen Arrasaten?

Madrilen bilbotar batzuen etxean zerbitzari lanean ibili nintzen, eta familia hori oporetan Debara joaten zen. Euskal Herria oso polita iruditu zitzaidan, eta Bilboko familiaren alaba Bergarara bizi izatera zihoala esan zidanean, harekin joan nintzen. 1956an joan nintzen Bergarara.

Eta Bergaran zerbitzari lanean jarraitu zenuen?

Apur baten bai. Gero, Union Cerrajeran lanean zebilen mutil bat, Julian Bermejo, ezagutu eta harekin ezkondu nintzen. Julian Arrasateko Cerrajerara bidali zuten, eta Arrasatera joan ginen bizi izatera, Erguin auzora. Sasoi hartan, Arrasaten etxebizitzak Bergaran baino merkeago zeuden. Bost seme-alaba izan genituen. Horrez gain, hamabost urtez Auzo Lagunen garbiketa berezituak egiten ibili nintzen, baina, gaixo nengoelako, aurretiko erretiroa eman zidaten.



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



ARRASATE
Ihintz Bengoa
Azaroaren 25ean, 22 urte.
Zorionak! Koadrilakoan partetik.




ARRASATE
Arane Ibáñez
Abenduaren 3an, 5 urte.
Zorionak! Aramaioko eta Arrasateko familia.



ARRASATE
Ana Perea
Azaroaren 22an, urtebetetzea. Familiakoak.




ARRASATE
Kati Perea
Azaroaren 22an, urtebetetzea. Familiakoak.




ARRASATE
Paula Jara
Abenduaren 2an, urtebetetzea. Familiakoak.



ARRASATE
Jon Zubiaga
Azaroaren 23an, 24 urte.
Zorionak, Osoron! Markel, Iزارo eta beste guztiak.



ARAMAIO
Ane Gardoki
Abenduaren 1ean, 3 urte.
Zorionak, etxekoan partetik.



ARRASATE
Iker Jiménez
Azaroaren 22an, 21 urte.
Zorionak! Koadrilakoak.



ARAMAIXO
Aimar Kerejeta
Abenduaren 2an, 2 urte.
Zorionak! Aitaxoren eta amatxoren partetik.



ARRASATE
Garazi Etxeberria
Azaroaren 24an, 12 urte.
Zorionak, potxolada! Zure koadrilakoan partetik.



ARRASATE
Kevin Cadavid
Abenduaren 3an, 7 urte.
Zorionak! Gurasoak, Ane eta Nagore.




ARRASATE
Xabier Zabala
Abenduaren 3an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoan partetik!



ARRASATE
Zumaia Arizabaleta
Abenduaren 4an, 11 urte.
Zorionak! Arrasateko etxekoan partetik.



ARRASATE
Carmen Arrieta eta Malen Arana
Azaroaren 27an, Malenek urtebete eta amamak bat gehiago. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Oscar Pérez
Azaroaren 28an, 23 urte.
Zorionak! Maite zaituzten partetik.



ARRASATE
Kepa Merkader
Azaroaren 30ean, 17 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
"Txaoite"
Azaroaren 30ean, urtebetetzea. Urteak aurrera doaz! Lehengusuak.



ARRASATE
Ane Garrido
Abenduaren 4an, 1 urte.
Zorionak! Aita-pontekoaren eta familiaren partetik.



ARRASATE
Aitor Iregi
Azaroaren 27an, 13 urte.
Zorionak! Etxekoan partetik.



ARRASATE
Lide Zubiaga
Azaroaren 30ean, 7 urte.
Zorionak! Iker, aitaxo eta amatxo.



ARRASATE
Udane Uribarren
Azaroaren 29an, 10 urte.
Zorionak! Familiaren eta Zapiren partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



URONDO


Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Zein menditatik dago aterata argazki hau?
Ze altuera du mendi horrek?

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileen artean!

ERANTZUNA:

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **EGUAZTEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

N^a Sra. de Ujue
Nafarroako ardoa 75 cl

1,25 € 208 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JESUS JIMENEZ endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jesus!
Galderen erantzun zuzenak:
Sexologia eta gazte bulegoa. Biteri etorbidean dago eraiki hori.

ARRASATEKO HISTORIA

Esteban de Garibai
mondragoetarra (II)

JOVANDER RAMOS

Joan den asteko artikulua Esteban de Garibaik Flandesera egin zuen bidaiarekin amaitu genuen, 1570ean. *Historiaren laburpena* lana egitera joan zen Flandesera, eta urtebete egin zuen han. 1571n, Arrasatera bueltatu zen. Urte hura ez zen batere ona izan, haren emaztea hil egin zen-eta. 1573an, *Historiaren laburpena* lanak arrakasta handia izan zuen. Hurrengo urtean, Toledoko emakume batekin ezkondu zen: Luisa de Montoyarekin, hain zuzen. 1575ean, Esteban de Garibai Jesusen Lagundia Eskola sortzen ahalegindu zen Arrasaten, baina ez zuen arrakastarik izan. 1587an, eskale eta gaizkileekin amaitzeko ordenantza proiektu baten parte hartu zuen. Badirudi garai hartako ospitaleak eskalez eta gaizkilez beteta egoten zirela, eta kalte handia egiten ei zuten. 1592ra arte itxaron behar izan zuen maiestatearen kronista titulua jasotzeko, baina ordurako Felipe II.ak 80.000 marabedi ematen zizkion urtero, pentsio gisa.

1575ean, Esteban de Garibai Jesusen Lagundia Eskola sortzen ahalegindu zen Arrasaten

1593an, Gipuzkoak erreinu titulua izateko gestioak egiten hasi zen, baina ez zuen lortu. Hiru urte geroago, 1596an, *Ilustraciones genealógicas* lana argitaratu zuen, Madrilen, eta Felipe III.ari eskaini zion lana, erregetzaren oinordekoari.

1599an, Esteban de Garibai gaixotu egin zen. Madrilen egin zuen testamentua, baina ezin izan zuen sinatu, eskuan paralisia zeukan-eta. Hiltzerakoan gorpua Arrasateko San Frantzisko elizan ehorzteko eskatu zuen, baina Esteban de Garibairen heriotzaren gainean esamesa asko daude; izan ere, ez dago argi non hil zen Esteban de Garibai: Madrilen, Toledon, Valladoliden... Ezta ere non ehortzi zuten. Hala ere, aberastasun handiko dokumentuak utzi zituen bidean.



Esteban de Garibai erregearen kronistaren erretratua.

XABIER URZELAI

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko azaroaren 29a / 48. zenbakia


KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Datorren urteko zergen igoera erabaki du oraingo astean udalbatzarrak

UBANE MADERA

Osoko bilkura egin du oraingo astean udalbatzarrak. Landutako gaien artean, herritarrek ordaindu beharreko zergen prezioen aldaketa aztertu zuten zinegotziek: esate baterako, zaborraren tasak ordaintzeko sistemak aldaketa dezente izango ditu.

Hain zuzen ere, zaborren tasetan gertatuko da aldaketarik nabarmenena. Kontua da Aramaioko Udalak Gorbeia Partzuergoarekin bat egin duela zaborrak jasotzeko orduan. Horren ondorioz, datorren urtetik aurrera, Partzuergo horren irizpideak erabiliko dituzte Aramaioko zaborraren gaineko zergak kobratzeko. Horren arabera, sailkapen berria ezarriko dute: etxebizitzek, lokal profesionalek, komertzioek, zerbitzu lokalek, ostalaritzak (txokoei eta sardexka bateko eta tenedore biko jatetxeek, tabernek eta baserri turismoek), kirol etxeek eta industriak, bakoitzak dagokion zerga ordaindu beharko du. Etxebizitzek dagokienez, adibidez, datorren urtean, jaitsi egingo da zaborraren gai-



Zaborra batzeko elkarteen aldaketaren ondorioz, zaborraren gaineko zerga ere aldatuko da 2003an.

neko zerga.

Ibilgailuei dagokienez, 1.38ko koefizientea ezarriko du Udalak. Horrek esan gura du zerga igo-

gingo dela, baina gutxi.

Ura, berriz, %10 igoko da; eta estolderia tasa, %4. Azken horri dagokionez, Udalaren asmoa da

tasa hori ordaintzen ez dutenei Udalak ez garbitzea euren hobi septikoa. Hilerraren tasa ere %4 igoko da 2003an. Ondasun Higie-

Aurten ez dute erabili Kontsumo Prezioen Indizea zergen igoera erabakitzeko

zinei dagokienez, berriz, hiri lurrarengatik %0,34 ordaindu beharko da (orain, % 0,32 da) eta landa lurrarengatik, %0,6 (orain 0,5 da).

Bestalde, eraikuntza, instalazio eta obra zergei dagokienez, oin berrikoengatik %4,5 kobratuko du Udalak (0,5 gehiago) eta berri-tze lanengatik, %3,5 (0,5 gehiago).

KPI BAINO EGOKIAGO

Orain, zergen igoera hori jendaurrean izango da hilabetez, interesa duenarentako. Aitor Leturiondo udal idazkariak adierazi digunez, bestetan, KPren (Kontsumo Prezioen Indizea) igoeraren arabera izaten da Aramaioko zergen igoera. Aurten, aldiz, legearen arabera egin dute. Aitor Leturiondoren esanetan, "modu egokiagoa da".

HERRITARREN HITZA / Asier Agirre • AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kidea

Gure lurra

Lurrari eta ingurumenari egiten zaion erasoen barruan arduradun asko daude. Alde batetik botere politiko eta ekonomiko mundialak daude; euren uraniozko bonbak, zentral nuklearrak, bonba atomikoak, gerrako armamentua... hondakin kimikoak sortuz.

Beste aldetik, botere politikoek egiten dituzten analisi okerrak direla-eta, gaur egungo azpiegiturak handitzearen nahiaren menpe, autopista eta autobide suntsitzailak, AHTren proiektu zentzugabea... egiten dituzte; eta jauntxo horiek konturatu beharko lirateke

egiten ari diren suntsiketa ezin dela atzera bota.

Lehenengo batean, telebistari begira nengoela, Álvaro Amann sailburua agertu zen hiriburuetako tranbia berrien inguruan hitz egiten. Berritzaileak eta garbiak direla esanez, trafikoa ikaragarri kenduko zutela, kalte ekologiko bat ere ez zutela egingo, ea. Esan zuen kolore berdez margotuko zituztela, ekologiar dioten errespetuaren eredu.



Zentzua erabiliz, bestelako mundua lortu dezakegu

Nik galdera bat botako nioke jaun horri: ea AHT zein koloreekin margotuko duen, haren eragina ikaragarria izango baita.

Gero, bestalde, guk egunero egiten ditugun kalteak ere badira; Lehenengo Munduan bizi garela deritzogunok gure egunerokotasunean egiten ditugunak:

automobilak erabili, askotan beharrik ez dagoenean; argindarraren kontsumo neurrigabea, argindar hori zentral nukleare-

tatik datorrela jakinda; kontsumitzen dugun janari asko (produktu transgenikoak, abeltegietan lantegietan moduan gizentzen dituzten animaliak); zaborrak edukiontzietara botatzen ditugu, nora doazen galdetu gabe. Agian asko itsasora botako ditugu, Galizian utzi dugun itsasontzia moduan, edo Hirugarren Mundura bidaliko dugu, hor zerbait jateko aurkitu dezaten pobreek.

Hori guztia ikusita, erokeria horren amaiera eta gure zentzua erabiliz bestelako mundua lortu dezakegulakoan nago; baina bere neurrian onartu ditzala bere eginbeharrak.

LABUR

Aurten, gripearen kontrako txerto gehiago

Iaz baino gripearen kontrako txerto gehiago ipini dituzte aurten Aramaion. Herriko anbulatoriotik jakinarazi digutenez, iaz, 195 txerto ipini zituzten, eta aurten, 223; hartu beharrra dutenen %92,89k hartu dute. Adierazi digutenez, urtero igotzen da apur bat ipintzen txerto kopurua, herritarrek geroago eta kontzientziazio handiagoa dute-eta. Aste gehiago, aurten, derrigorrezkoa zutenez gain, bestelakoak ere joan dira gripearen kontrako txertoa ipintzera.

HIRIGINTZA

Etxebizitzak egingo dituzte Nadeagan

Beharrezkoak diren udal bai-menak eskuratu eta gero, etxebizitzak egingo dituzte Ibarra auzoko Nardeaga kalean. Hain zuzen ere, oraingo asteko osoko bilkurak landu du gai hori; etxebizitza horiek eraiki ahal izateko legeak ezartzen dituen egin-beharrak zehazteko, hain zuzen.

Promociones Aramaixo izeneko enpresa arduratuko da eraikuntza lanetaz. Enpresa horretako kide den Javier Osak adierazi digunez, asmoa da sei etxebizitza eraikitzea. Urte hasieran hasteko asmoa dute eraikitzen eta urte eta erdi eskasean jardungo dute horretan, beti ere aurrez ikusitakoaren arabera.

Aurrera begira, berriz, etxebizitza gehiago eraikitzeko asmoa dutela jakinarazi digu Javier Osak. Baina, haren esanetan, etxeak eraiki ahal izateko lurra lortu behar dute lehenengo. Eta hori da zailena.

Promociones Aramaixo enpresak lehenagotik ere eraiki izan ditu etxebizitzak Aramaion. Hirubietan, adibidez, eta baita Ibarra bertan ere.

KIROLA

Datorren urteko federatu txartelak egiteko epea: abenduaren 12a baino lehen

Orixol Mendi Elkarteak ekin dio 2003rako federatu txartelak egiteari. Txirritola aldizkariari jakinarazitakoaren arabera, Euskal Federazioko zein Espainiako Federazioko txartelak egiten dituzte, baita, Pirinio frantsesera edo mundu osora joateko behar direnak ere; eta eskia egiteko, espedizioetarako edo mendiko bizikletan ibiltzeko behar direnak ere bai. Horrekin batera, Orixol elkartearen beraren bazkide egiteko epea ere zabaldu dute. Hain justu ere, abenduaren 12a artekoa izango da federatzeko zein Orixoleko bazkide egiteko epea. Interesdunak Euskadiko Kutxak Aramaion duen bulegora joan beharko dira kuota ordaintzera, aipatutako epea baino lehen. Horrekin batera, Orixolek jakinarazi digu joan den urtean apuntatutako bazkideei zein federatuei 2003ko kuota kobratuko dizkietela, eurek abenduaren 12a baino lehen kontraktorik ez badute esaten, behintzat.



MIKEL BERGARA

Eskia egiteko federatu txartela ere lor daiteke Orixol Mendi Elkartearen.

KUOTEN ZENBATEKOA

Hain zuzen ere, Orixol Mendi Elkarteak bazkide izan gura duenak bederatzi euro ordaindu beharko ditu; lau euro eta erdi, haurra edo ikaslea izanez gero.

Federatu txarteleei dagokionez, berriz, mota bakoitzak prezio bat izango du. Horrela, adibidez, txartel arruntak 15,90 euro

balioko du, 13 urtetik beherakoenako; 20,10 euro 14-17 urte artekoendako eta 62,60 euro 18-64 urte artekoendako. Frantziako Pirinioetarako txartelak, bestalde, 11,72 euro balioko du; mundu osokoak, 29,72 euro; espedizioak egitekoak, 275 euro, eskiatzekoak, 10,50 eta, azkenik, bizikletan ibiltzekoak, 6,95 euro.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gornia (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUS ORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoak da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute hohako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BERRIRO ERE IRABAZLE

Bide ezin hobetik segitzen dute Bañerako areto futbolako taldeek. Gazte mailako taldeak, adibidez, Urgatzi taldearen kontra jokatu zuten, zapatuan (hilak 23), eta 7-2 irabazi zion. Bihar, zapatua, dute hurrengo hitzordua, Izarran, 11:00etan, Izarra Gorriren kontra. Kadeteek ere garaipen ikusgarria eskuratu zuten, Izarrako Lan eta Jolasen kontra: 14-0. Bihar, berriz, El Campillo izango dute aurrez aurre, El Campillon, 11:00etan. Eta neskek izan ziren zoritxarrekoak. Euren fitxekin arazoa izan zuten eta lagun arteko partidua besterik ez zuten jokatu. Gainera, datozen bi asteotan ez dute beste partidurik izango.

ZINEA

Spirit filma emango dute. Betiko moduan, kultura etxean, 17:00etan.

SAN MARTINEKO ZOZKETA

Bigarren eta hirugarren sariari jabeak agertu dira; ez, ordea, txerriaren jabea. Hortaz, ondo begiratu poltsikoetan ea 1.271 zenbakia agertzen den.

HIRIGINTZA



Kulunka berriak herriko umeendako

Oraingo astean ipini dituzte Bañera parkean kulunka berriak. Astelehenean iritsi ziren (hilak 25), eta kulunken gomazko zorua ipintzea besterik ez da falta. Hau da, umeek minik hartu ez dezaten ipintzen duten zoru mota berezi hori. Baina zoru hori ipintzeko beharrezkoa da guztia siku-siku egotea, eta horren zain daude langileak. Edozelan ere, laster estreinatu ahal izango dituzte kulunka berriak Aramaio neska-mutikoek. Eta duda barik, gogoz hartuko dituzte, aspalditik dauka eta kulunka barik.



Manex Agirrek atzo jokatu zuen finala, Gasteizen

UBANE MADERA

Atzo iluntzean (eguna) jokatu zuten Gasteizko Sociedad Ciclista Vitoriana elkartearen Bagare izeneko bertso sari-keta. Han izan zen, beste bost bertsolariren artean, Manex Agirre aramaioarra. Seion artean bertsolari bakarra aterako da garaile.

Gasteiztarrak edo arabarrak diren bertsolariek, Gasteizen ikasten ari direnek eta kanpotik gonbidatutako batzuk hartu dute parte Bagare izeneko bertso sari-ketan, bertsolari gazteendako sari-ketan. Hain zuzen ere, atzo jokatu zuten finala, Gasteizen. Han izan ziren, aurrez aurre, Urko Egaña, Iñigo Eizagirre, Iñaki Gurrutxaga, Ekaitz Goikoe-

txea, Julen Zulaika eta Manex Agirre bertsolari gazteak. Manex Agirre izan da, hain justu ere, lehiaketako finalera iritsi den arabar bakarra.

Besteak beste, honako ariketak egin behar zituzten bertsolari gazteek: ariketa berezi moduan, agurra egiteko orduan, epaimahaiak emandako doinuari letra ipini behar zioten. Gero, letra horrez gain, bertsolariek zela kantatu duten ere baloratu behar zuten epai mahaia; hau da, neurrria zela sartu, erritmoa... hori izan da, hain zuzen ere, lehiaketako berri-tasunetako bat. Horrekin batera, ohiko ariketak ere egin behar izan zituzten bertsolariek.

Edozelan ere, artikulu hau idazterakoan lehiaketa egin barik zegoenez, ez dugu jakiterik zeinek irabazi duen.

ERRETRATUZAHARRA

Santa Zezilia
Eguneko
ospakizunak

Joan den egubakoitzean, azaroaren 22an, Santa Zezilia Eguna izan zen, musikarien zaindarien eguna. Hori dela eta, egoki iruditu zaigu ondoan ikusten duzuen argazkia argitaratzea.

1950-51. urteko Santa Zezilia Egunean dago aterata, Cerrajerako Zalduspeko futbol zelaian. Arrasateko Bandako musikariak agertzen dira argazkian. Izan ere, oso ospakizun berezia egiten zuten musikariek euren zaindarien eguna ospatzeko.

Gure berriemaileak kontatu digunez, goizean lan egiten zuten, 11:00ak arte. Gero, 12:00etan, mezetara joaten ziren. Meza ostean, Bandak kalejira egiten zuen Arrasateko kale guztietan barrena. Eta bazkalostean, berriz, futbol partidua jokatzen zuten Bandakoek, Zalduspen: hain zuzen, egurrezko instrumentuak jotzen zituztenak metalezko instrumentuak jotzen zituztenen kontra. Eta gauean, afaria, Centro de Accion Catolican.

Ohitura izaten zuten gau hartan On Ignacio Goikoetxea abokatuare



afaltzera gonbidatzea; eta afalostean pianoa jotzen zuen. Derrigorrez *Koilaratxo*en Polka jo behar izaten zuen abokatuak. Hori bai, Bandako lagun guztiek laguntzen zuten, koilaratxoekin edalontziak jotzen.

Honakoak agertzen dira argazkian,

goian, ezkerretik hasita: Anton Azkarate, Julio Gorroñoigoitia, Lorenzo Oruna, Jose Expósito, Jose Luis Mendieta, Luis Martínez eta Jesus Azkarate.

Behean, berriz, honakoak daude, ezkerretik eskumara: Lorentxo Oruna,

Bixente Azkarate, Jose Maria Oruna, Rafael Ortubai eta Ignacio Sanz.

Argazkia eta informazioa:

B. Azkarate

Urtea:

1950-51. urtea

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Grupo San
Juan, zelaia
zenean

Oraingoan, Cerrajerako lantegi aldetik ateratako argazki batekin gatozki-zue. Gaur egun, ezinezkoa da argazkia leku beretik ateratzea, eta guk Saiolaneko bulegoetatik egin dugu saiakera. Zaldibarko pilotalekua eta Grupo San Juaneko etxeak egin barik zeuden ezkerreko argazkian. Eta atzeko aldean, berriz, Maalako errabaleko etxeak ikusten ditugu.



≈ 1950

Grupo San Juaneko etxeak 1955ean hasi ziren egiten, eta argazki hau lehenagokoa da. Maalako etxea ere ikusten da.



2002

Zelaia zegoen lekuan etxebizitzak eta pilotalekua daude orain: Grupo San Juaneko etxeak eta Zaldibarko pilotalekua, hain zuzen ere.



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

Monte taberna

Maalako arrabala 2
Tel.: 943 79 20 56

UGARTE

Industria hornidurak


San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

1. euskal selekzioaren cd-rom jokoak



902 010 735
Telefona 24 orduz.

Imajina dezakezun guztia!



Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!




Aukera ezazu taktikarik egokiena



Jokatu: Munduko Txapelketa, Lagun arteko partiduak, sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...
Giro-soinu aparta, Ikurrinak harmailetan...
Jokoaren estatistikak
Jokaldi onenen errepikapenak...
Lau futbol zelai aukeran.
Partiduak egunez, gaez, euriarekin...



euskal selekzioaren bufanda
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,
72 orduan bidaltze gasturik gabe



35,95 euro

Jokoa orain erosiz gero, bufanda eta garraioa

DOAN

